

Esp. zk. SUBV_CON_COMPET/2025/23

DIRULAGUNTZA-DEIALDIA LEHENTASUNEZKO PRODUKTU TURISTIKOAK

BABESTEKO

Deialdi honen xedea da dirulaguntzak norgehiagokako araubidean emateko prozedura garatzea, deialdi honetako B) apartatuan zehaztutako jarduketak egiteko, horrela betez Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrek xedatutakoa. Iruñeko Udaleko Osoko Bilkurak hasiera batez onetsi zuen ordenantza hori 2005eko azaroaren 3an hartutako erabakiaren bidez, eta erabaki hori behin betiko bihurtu zen, jendaurreko epean inork erreklamaziorik aurkeztu ez zuelako. **Deialdi honetan arautu gabeko orotan, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorreko aginduak izanen dira aplikagarri.** ([2006ko 21. NAOn argitaratua, otsailaren 17koan](#)).

Iruñeko Udalaren 2025erako Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren helburuetako bat da, hala nazioko ekitaldietan nola nazioartekoetan, Iruña sustatzea xede duten jarduerak eta ekitaldiak sustatzea eta babestea. Plan horren 8. ildo-estrategikoan (Turismoa) jasotzen da berariazko dirulaguntza-ildo bat: lehentasunezko produktu turistikoak babesteko laguntzen deialdia. Horregatik guztiagatik, deialdi hau aipatutako plan estrategikoak ezartzen dituen helburu, esparru eta oinarritzko ildoekin guztiz bat datorren tresna da.

A. ENTITATE DEITZAILEA:

1. Administrazio deitzailea:	IRUÑEKO UDALA
2. Organo emailea:	Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektzioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako zinegotzi ordezkaria
3. Alor kudeatzailea:	Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektzioko, Berrikuntzako, Gazteriako eta Garapenerako Lankidetzako Alorra
4. Instrukzio-organoa:	Dirulaguntza kudeatzen duen alorreko idazkaritza teknikoa.

B. DIRULAGUNTZAREN XEDEA, BALDINTZAK, BETEKIZUNAK ETA HELBURUA:

1. Deialdiaren xedea: Deialdi honen xedea da dirulaguntzak ematea ekitaldiak antolatzen dituzten entitateen eta enpresen artetik 2024ko urriaren 1etik 2025eko irailaren 30era Iruña sustatzeko jarduerak egiten dituzten horiei. Deialdi honen esparruan, hau hartuko da ekitalditzat: gertaera garrantzitsu eta programatua, izaera sozial, akademiko, kultural-artistiko edo kirolekoa duena, bisitariak eta turistak erakartzeko gaitasuna duena eta parte hartzeko izena emateko sistema bat duena. Entitate eta enpresa antolatzaileei zuzentzen zaie, hala nola: a) Zuzenbide publikoko erakundeak: unibertsitateak edo ikerketa-erakunde publikoak, beren zentro, institutu, departamentu, atal edo bestelako ikerketa-unitateen bidez. b) Berezko nortasun juridikoa duten elkarte zientifikoak, elkargo profesionalak eta irabazi-asmorik gabeko beste erakunde publiko edo pribatu batzuk. c) Zuzenbide pribatuko entitateak: hainbat motatako enpresak edo bileretako turismoaren sektoreko sozietateak.
2. Deialdiaren xedea: Ekitaldiak antolatzen dituzten entitate publikoak zein pribatuak laguntzea, ekitaldi gisa ulertuta 1. puntuan jasotzen den definizioa. Deialdiaren xedea.

Inongo kasutan ez dira diruz lagunduko hiriaren helburu estrategikoak eta Iruña 2030 estrategia hausten duten jarduketak, ezta 2024-2029 aldirako Iruñeko Turismoko Plan Estrategikoarekin bat egiten ez duten jarduketak eta Iruñeari onurarik ekartzen ez dizkieten jarduerak ere. Edozein kasutan, dirulaguntzaren xede diren jarduerak berekin ekarri beharko lukete helmuga turistikoa adimenduna lortzea, Industria, Merkataritza eta Turismoko Ministerioaren helmugako jasangarritasun turistikoko estrategiarekin bat, PSTD PAMPLONA SF365aren garapenaren barruan.

3. Diruz laguntzen ahal diren ekintzak, proiektuak, jokamoldeak eta jarduerak egiteko baldintzak, betekizunak eta epeak:

Dirulaguntzaren xede izanen dira honako jarduketa-ildo hauetan eta Iruñeko udalerriaren lurralde-eremuan garatzen diren ekintzak. Baldin dirulaguntzaren xede den inguruabarrak, salbuespenez, Iruñeko udal-mugartea gainditzen badu, Udalaren interesen aldekoa izan beharko du, zuzenean edo zeharka.

Jarduera bat diruz lagundu ahal izateko, gutxieneko baldintza hauek bete beharko dira:

- .- Ekitaldiak eta hari lotutako balioek oinarritzko askatasunak eta eskubideak, aukera-berdintasuna, diskriminaziorik eza eta giza eskubideak errespetatu beharko dituzte.
- .- Deialdi honen esparruan, hau hartuko da ekitalditzat: gertaera garrantzitsu eta programatua, izaera sozial, akademiko, kultural-artistiko edo kirolekoa duena, bisitariak eta turistak erakartzeko gaitasuna duena eta parte hartzeko izena emateko sistema bat duena.
- .- Beti bermatu behar da Iruñeko hiriaren helmugako marka edo logotipoa agertzen dela hedabideetan (prentsa idatzia, prentsa-oharrak, irratia, telebista...) egindako publizitatean, webgune ofizialean eta erabiltzen diren beste euskarri batzuetan, hala nola papergintza ofizialean, hesietan, olanetan, karteletan, banderoletan, podiumean...
- .- Marka turistikoa ez da lausotu behar beste babesle batzuekin, bereziki kaltetu badezakete. Beraz, helmugaren logotipoa edo marka behar bezala eta nabarmenduta erakutsi beharko dira erabilitako euskarri guztietan.
- .- Erakundeen presentzia bermatuko da, bai irekiera-ekitaldietan, prentsaurrekoetan, ongietorri-ekitaldietan edo antzekoetan, eta udal-kargudunek parte hartuko duten erabakitzeak aukera izanen dute.

DIRUZ LAGUNDUTAKO EKINTZAK:

Diruz lagunduko dira Iruña helmuga turistikoa gisara sustatzea helburu duten honako jarduketa-tipologia hauek:

- a) Hiria ezagutzeko bidaiak egitea, komunikazioaren profesionalei zuzenduak: Iruña sustatzen duten *presstrip*-ak, *blogtrip*-ak, *influencer*-en bidaiak eta antzekoak.
- b) *Famtrip*-ak egitea, sektore turistikoa profesionalei zuzenduak, Iruñeko eskaintza turistikoa merkaturatzea errazten dutenak.
- c) Sustapen-materialak sortzea, formatu fisikoan edo digitalean.
Ekitaldiaren esparruan Iruñeko helmuga turistikoa sustatzea helburu duten sustapen-material fisiko zein digitalak sortzen edo eguneratzen lagunduko da. Ekitaldiaren berezko materialak ez dira diruz lagunduko, ekitaldiaren adiera kontuan hartuta, B.3 apartatuan definitzen den bezala. Materialen hizkuntza hartzaileei egokitu beharko zaie.
- d) Iruña sustatzen duen ekitaldiaren publizitate-kanpainak, konbentzionalak eta ez-konbentzionalak.
Laguntza honen testuinguruan, diruz laguntzeko modukotzat joko dira prentsa, irratia nahiz telebista edozein formatutan (konbentzionala zein online) erabiltzen duten publizitate-kanpainak, bai eta egunkari zein irratietan egindako iragarkiak eta onlineko marketin-jarduketak, ekitaldia eta Iruña sustatzea xede dutenak. Ez dira diruz lagunduko Nafarroako esparruan soilik garatzen diren kanpainak, ezta ere Udalak

NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

eta entitate/enpresa eskatzaileek batera antolatutako kanpainak.

Onlineko marketin-kanpainetan Iruñeko Udalaren sare sozialak aipatu beharko dira, sare sozial bakoitzaren izaera aintzat hartuta komeni den moduan, esaterako, honako hauek erabilia: @visitpamplona, @visit_pamplona, #pamplonaesmuchomas, eta abar. Horretarako, Iruñeko Udaleko Turismo Zerbitzuaren aholkularitza izaten ahalko dute.

e) Ekitaldia sustatzeko webguneak.

Webguneak diruz lagunduko dira, betiere Iruñeko helmuga turistikoa sustatzen bada hasierako orrian ikusteko moduan eta esteka zuzena badago Udalaren turismoko www.visitpamplonairuña.com webgunera. Aipatzen den helmugaren marka "pamplona, bizi-bizirik. iruña, muy viva" da. Webgunearen hizkuntza hartzaileei egokitu beharko zaie.

Elementu horiek txertatze hutsak ez dakar berekin Iruña helmuga turistikoa gisa sustatzea; beraz, komunikazio guztietan hiriaren aipamena egin beharko da, esplizituki. Hainbat gailutan erabiltzeko egokituta egonen dira.

Kasu guztietan, Iruñeko hiriaren sustapena hobetu eta Turismo Zerbitzuaren helburuekin lerratzeko xedez, turismo-entitateek eta enpresek Iruñeko Udaleko Turismo Zerbitzuaren aholkuak jasotzeko aukera izanen dute, eta horrek erabilitako euskarrietarako egokitutako hainbat aukera eskainiko dizkie.

EZ DIRA DIRULAGUNTZAREN XEDE IZANEN EDOZEIN KOMUNIKAZIO-EUSKARRITAKO GASTUAK, BALDIN ETA EZ BADIOTE PUBLIZITATERIK EMATEN JARDUKETA HORIETARAKO IRUÑEKO UDALAK EMANDAKO DIRULAGUNTZARI, publizitateari buruzko E apartatuan jasotakoarekin bat.

Entitate eskatzaile bakoitzak dirulaguntza jasotzen ahalko du aipatutako edozein jarduketari lotutako ekintza bat edo gehiago egiteko.

C. AURREKONTU-KREDITUAK, DIRULAGUNTZEN GEHIENEO ZENBATEKO OSOA ETA BANAKAKO ZENBATEKOA:

1. Deialdiaren guztizko zenbatekoa, gehienez, kreditu erabilgarrien barruan: 15.000 €

Esleitutako aurrekontu-zenbatekoa aurkeztutako proiektuen artean banatuko da. Proiektuen lehentasun-hurrenkera bat ezarriko da balorazioan erdietsitako puntuen arabera. Dirulaguntzak emanen dira gaitutako aurrekontu-kontsignazioa agortu arte, eta proiektuak dirulaguntzarik gabe geratzen ahalko dira nahiz eta 30 puntu (dirulaguntza erdietsi ahal izateko eskatutako gutxieneko puntuazioa) baino gehiago eskuratu.

Proiektu bakoitzerako laguntzaren zenbatekoa onartutako aurrekontuaren % 70 izanen da, gehienez ere 3.000 €.

Dirulaguntza jasotzeko eskubidea ematen duen puntuaziorik baxuena duten proiektuetan puntu-berdinketa gertatuz gero, dirulaguntza proportzionalki banatuko da hasieran dagokien laguntzaren zenbatekoaren arabera.

Dirulaguntzek ezin izanen dute gainditu deialdi honetan ezarritako zenbatekoa.

2. Aurrekontuko partida: 90/43200/482090

3. Banakako gehieneko zenbatekoa eta hori zehazteko irizpideak: Proiektu bakoitzerako laguntzaren zenbatekoa ez da inola ere onartutako aurrekontuaren % 70 baino gehiago izanen, ezta 3.000 €-tik gorakoa ere proiektu bakoitzeko.

4. Hainbanatzeko aukera:

☐ BAI ☒ EZ

Baiezkoa bada, nola hainbanatu:

5. Urte anitzeko deialdia: ☐ BAI ☒ EZ

Urte anitzeko deialdietan, dagokion aurrekontuan ekitaldi bakoitzerako zer kreditu esleitu den, kreditu horren menpe izanen dira urte anitzeko gastuak baimentzeko eta konprometitzeko aukera.

6. Urtekoak:

Urteko arrunta:	15.000 €	2. urtekoa ()	€	4. urtekoa ()	€
1. urtekoa ()	€	3. urtekoa ()	€		

D. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNA IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK:

1. Pertsona edo entitate onuraduna izateko bete beharreko baldintzak:

Dirulaguntzaren onuradun izaten ahalko dira dirulaguntza emateko oinarrian adierazten den egoeran dauden pertsonak edo entitateak, baldin eta jarraian adierazitako inguruabarretan badaude, eta Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan ezartzen diren ezein debeku-kasutan ez badaude; eta non eta, dirulaguntzaren izaera dela-eta, interesduna azken baldintza hori bete behar izatetik salbuesten ez den; kasu horretan, hala adierazi beharko da apartatu honetan.

Berariazko baldintzak: ☒ BAI ☐ EZ

- Legearekin bat eraturik egotea eskaera aurkezten duten datan.
- Eguneratuak izatea zergei nahiz Gizarte Segurantzari buruzko betebeharrak.
- Egunean izatea Iruñeko Udalaren aurrekontuen kargura emandako aurreko dirulaguntza-deialdietan ezarritako betebeharrak.

Dirulaguntzaren izaera berezia denez, pertsona edo entitate onuradunek ez daukate zertan egiaztatu Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10.2 artikuluan araututako baldintzak betetzen dituztela:

☐ BAI ☒ EZ

2. Nola egiaztatu pertsona edo entitate onuradun izateko baldintzak betetzen direla: Deialdi honen G.4) apartatuan eskatzen diren agiriak eta informazioa aurkeztuta, dirulaguntzaren eskabidearekin batera.

E. PERTSONA EDO ENTITATE ONURADUNAREN BETEBEHARRAK:

Deialdi honen ondorioetarako, pertsona edo entitate onuradunaren betebeharrak dira Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 11. artikuluan eta apartatu honetan ezartzen direnak.

Berariazko betebeharrak:

☒ BAI ☐ EZ

"pamplona, bizi-bizirik, iruñia, muy viva" marka turistikoa eta www.visitpamplonairuñia.com webgunea agertzea. Horiek derrigorrez sartu beharko dira jardueretarako sortutako euskarri guztietan (liburuxkak, gidak, mugikorretarako aplikazioak, webguneak, standak, kartelak, telebistako iragarkiak, bideoak, etab.). Halaber, derrigorrezkoa izanen da euskarri guztietan "Iruñeko Udalaren laguntzarekin" testua sartzea.

Deialdi hau argitaratu aurretik antolatu diren ekitaldiek gutxienez Udalaren logotipoa izan beharko dute.

Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeari eta Gobernu Onari buruzko 5/2018 Foru Legearen 12.3 artikuluan xedatutakoarekin bat, onuradunek hamar eguneko epea izanen dute, Iruñeko Udalak eskatu ondotik, beharrezkoa duen informazio guztia hari emateko, bete ditzan aipatutako 5/2018 Foru Legearen I. tituluan adierazitako betebeharrak.

Iruñeko Udalaren edo haren erakunde autonomoen dirulaguntzak jasotzen dituzten entitateek behar bezala publizitatu eta hedatu behar dute Udalak publikoki finantzatu dituela dirulaguntzaren xede diren

jarduerak edo proiektuak. Horretarako:

- Udalaren logotipoa txertatu beharko dute komunikazio- edo publizitate-idatzi eta -grafikoetan (liburuxka, kartel, katalogo, webgune, prentsa-iragarki, publizitate digital, telebista eta abarretan), baita legenda hau ere: "Iruñeko Udalaren laguntzarekin – Con la colaboración del Ayuntamiento de Pamplona". Udalaren logotipoa dirulaguntza jaso duen entitatearenaren tamaina berekoa izanen da gutxienez.
- Irratian eta beste komunikabide ez-grafiko batzuetan egiten den komunikazio edo publizitateari dagokionez, honako lokuzio hau txertatu beharko da: "[Jarduera / Proiektu] hau Iruñeko Udalaren laguntzarekin egin da".
- Promozio- edo publizitate-oparietan eta dirulaguntzak finantzatutako beste edozein gauza edo produktuetan, Iruñeko Udalaren logotipoa duen etiketa bat jarri beharko da.

Betebehar hori betetzen ez bada, dirulaguntza itzuli beharko da.

Dirulaguntza zehazki zer xedetarako eman den, horretan erabiltzeko betebeharra, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 29.4 artikularekin bat: ☐ BAI ☒ EZ
Xede-epea:

F. PROIEKTUAREN ALDAKETAK:

Proiektuan aldaketak egiteko aukera:

☒ BAI ☐ EZ

Aurreikusi gabeko inguruabarren bat gertatuz gero, eta salbuespenez, proiektuan aldaketak egiten ahalko dira aldaketa-eskaera bat aurkeztuta; bertan aldaketez gain, horiek eragindako inguruabarren justifikazioa jaso beharko da, eta edozein kasutan, beharrezkoak izanen dira honako hauek:

- Alor kudeatzailearen aurretiko baimena.
- Aldaketa eragin duten egintzen berri izan eta hurrengo 10 egun balioduneko epean jakinaraztea.
- Funtsezko aldaketak ez izatea.

Honako hauek hartuko dira funtsezko aldaketatzat:

- Nori zuzenduta dauden, helburu, esperotako emaitza, data eta edukiaren ingurukoak.
- Aurkeztutako aurrekontuaren partidak aldatzen dituztenak, baldin eta horien batura, guztira, emandako dirulaguntzaren % 20tik gorakoa bada.

Aldaketak balorazio-irizpideei eraginez gero, P letrako justifikazio-fasean aipatutakoaren arabera doituko da.

G. ESKABIDEAK AURKEZTEA:

1. Eskabideak aurkezteko tokia:

Eskabideak telematikoki aurkeztu beharko dira, Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoan (www.pamplona.es/eu) argitara emandako "Dirulaguntzen eskaera elektronikoa pertsona juridikoendako" delako izapidearen bidez. Izapide horrek barne hartzen ditu deialdi honen G eta T apartatuetan aipatutako agiriak.

2. Eskabideak aurkezteko epea: Eskabideak eta eskatutako agiriak aurkezteko epea hilabetekoa izanen da, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina. Eskabideak aurkezteko epea luzaezina izanen da.

Aipatutako epetik at aurkeztutako eskabideak ez dira onartuko.

3. Eskabideak eta agiriak nola aurkeztu:

Eskaerak eskabidearen bidez egin beharko dira, ala PDF formatuko (aurkezpen telematikorako) eskabidez. Interesdunak sinatuta aurkeztu beharko dira edo, bestela ere, dirulaguntza eskatzeko nahikoa ordezkapen duen eta ordezkapen horri buruzko erantzukizunpeko adierazpena egin duen pertsonak sinaturik, betiere bat etorrita "Dirulaguntzen eskabide elektronikoa pertsona juridikoendako" izapidean adierazitako jarraibideekin bat. Eskabidearekin batera, deialdi honen G.4 apartatuak aipatzen dituen agiriak aurkeztu beharko dira.

Ez da beharrezkoa izan deialdi honetako G.4) apartatuan aipatutako agiriak aurkeztea baldin eta, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikularekin, jarduten duen Administrazioak jada bere esku baditu edo beste ezein Administrazioak egin baditu, salbu eta eskatzaileak edo kasuan kasuko ordezkariak ez badio Iruñeko Udalari baimenik ematen informazioa dagokion administrazio publikotik eskuratzeko.

Eskabide batek ez baditu betekizunak betetzen, ez badira deialdi honetan ezarritako agiriak aurkezten, edo bestela, ez bazaio Iruñeko Udalari baimenik eman agiriok egin dituen administrazioaren bidez eskuratzeko, interesdunari eskatuko zaio gehienez ere hamar eguneko epe luzaezinean akatsa zuzendu dezala edo nahitaezko agiriak aurkez ditzala, eta ohartaraziko zaio hala egin ezean ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, betiere aldeztu aurretik ebazpena emanen delarik, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 21. artikulua ezarritakoarekin bat.

Dirulaguntza jasotzeko eskabidea aurkezteak berekin dakar deialdi honen oinarriak oso-osorik onartzea.

Aurrekoan xedatutakoa gorabehera, Udalak edo haren mendeko erakunde autonomoek ezin badute agiriren bat eskuratu, eskatzaileei eskatzen ahalko diete hura aurkezteko, edo, bestela, agiria zein betekizuni dagokien eta horiek beste bide batzuk erabiliz egiaztatzeke, betiere ebazpen-proposamena egin baino lehen.

Entitate eskatzaile bakoitzak dirulaguntza jasotzen ahalko du 3. apartatuan (Diruz lagundutako ekintzak) deskribatutako ekintzetako bat edo gehiago egiteko. Ekintzetako bakoitza banaka baloratuko da, koadro honetako H) letran ezarritako irizpideekin bat.

4. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

Interesdunek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskatzailearen nortasuna egiaztatzen duten agiriak, eta, halakorik balitz, haren izenean ari den ordezkariaren nortasuna egiaztatzeak. Entitatea legeekin bat eraturik dagoela egiaztatzen duen dokumentua, entitatearen egoitza eta zergetarako helbidea egiaztatzen duena, eta eskabidea aurkezten den datan entitatea legeekin bat eraturik dagoela egiaztatzen duen dokumentua.

Ez da beharrezkoa izan hemen zehaztutako agiriak aurkeztea baldin eta Iruñeko Udalaren edo beste administrazio publiko baten eskuetan badaude, betiere eskatzailea ez bada Iruñeko Udalak agiriak ofizioz eskatzearen aurka agertu. Kasu horretan, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko da, VIII. eranskinarekin bat.

b) Erantzukizunpeko adierazpena, izapide telematikoan ezarritakoarekin bat, ziurtatzeko eskatzaileak bete egiten dituela onuradun izateko Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrek eskatzen dituen betekizun orokorrak zein deialdi honek eskatzen dituen berariazkoak, eta ezein debeku-ziok ez duela ukitzen, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorren 10. artikuluan aipatzen direnen artean.

c) Eskatzaileak zergei eta Gizarte Segurantzari dagozkien betebeharrak eguneratuak dituela ziurtatzeko agiriak.

Udalak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikularekin bat, ofizioz egiaztatuko du interesdunak egunean dituela administrazio eskudunarekiko betebeharrak horiek, eta egiaztapen hori dagokion eginbidean jasoko du, betiere dirulaguntza emateko ebazpen-proposamena egin baino lehen. Salbuespenez, eta Iruñeko Udalak ezin baditu agiriok eskuratu, interesdunari eskatzen ahalko zaio aurkez ditzala.

Interesduna Udalak egiaztapen horiek ofizioz egitearen aurka agertuz gero, administrazio eskudunek emandako egiaztagiria aurkeztu beharko ditu dirulaguntza eskatzean egindako adierazpen horretan jasotako datuak egiazkoak direla ziurtatzeko.

d) Deialdiak ezartzen badu eskatzailea pertsona-talde bat izaten ahal dela, izan pertsona fisikoak, izan juridikoak (publikoak ala nortasun juridikorik gabeko pribatuak), eskabidean berariaz adierazi beharko da taldeko kide bakoitzak zer egiteko konpromisoa hartu duen eta zenbateko dirulaguntza aplikatuko den kide bakoitzeko. Kideok ere onuraduntzat joko dira. Nolanahi ere, elkartearen ordezkari edo ahaladun bakar bat izendatu beharko da, eta behar beste ahalorde emanen zaizkio elkarteak onuradun gisa dituen betebeharrak bete ditzan.

e) Adierazpen bat, non adieraziko baitira beste zenbait administrazio, entitate edo pertsona publiko zein pribatu helburu bera lortzeko eskatutako edo haiengandik jasotako dirulaguntzak, bertan zehaztuta entitate emaileen izenak, eskatutako kopuruak eta jasotako zenbatekoak. Adierazpena izapide telematikoa emandako jarraibideekin bat egingen da. ☒ BAI ☐ EZ

f) Memoria, eskatzen den dirulaguntzari lotutako proiektu, ekintza, jarduera edo programa deskribatzen duena.

IV. ERANSKINA.

g) Erantzukizunpeko adierapena, BEZaren gainean, V. ERANSKINAREKIN bat.

Deialdian parte hartzen duen entitateak aitortu beharko du emandako informazio guztia egiazkoa dela, badituela informazio hori egiaztatzeko agiriak, jatorrizkoak edo kaitotutak (besteak beste, tituluak, ziurtagiriak eta bestelako agiri ofizialak), eta horien kopiak aurkezten dituela. Halaber, bere gain hartuko du informazio horren egiazkotasunaren erantzukizuna, bai eta hura faltsua izatera, horrek ekar ditzakeen kalte-galerena ere.

.

Modu telematikoa egiten ez diren izapideetan, agiriak jatorrizkoak izan behar dute, edo horien kopia konpultsatutak, edo bestela, indarreko legeekin bat benetakoak diren kopiak.

Modu telematikoa egiten diren izapideetarako, deialdian parte hartzen duen entitateak aitortu beharko du emandako informazio guztia egiazkoa dela, badituela informazio hori egiaztatzeko agiriak, jatorrizkoak edo benetakotzat egiaztatutak (besteak beste, tituluak, ziurtagiriak eta bestelako agiri ofizialak), eta horien kopiak aurkezten dituela. Halaber, bere gain hartuko du informazio horren egiazkotasunaren erantzukizuna, bai eta hura faltsua izatera, horrek ekar ditzakeen kalte-galerena ere.

H. ESKAERAK BALORATZEKO IRIZPIDE OBJEKTIBOAK:

Eskaerak baloratzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

1.- SUSTAPEN ETA PUBLIZITATE EKINTZAK (70 puntu bitarte)

1.1.- Hiria ezagutzeko bidaia komunikazioaren profesionalendako eta *famtrip*-ak (30 puntu bitarte)

a. Bidaietako parte-hartzaileen kopurua (15 puntu bitarte).

- 7 profesional baino gehiago: 15 puntu

- 5 profesional baino gehiago: 10 puntu

- 3 profesional baino gehiago: 7 puntu

Oharra: ez dira parte hartzen duten profesional gisa hartuko Nafarroan lan egiten duten edo nagusiki Nafarroan komunikazioko, sustapeneko eta produktuaren salmentako jarduera profesionala egiten duten

pertsonak.

b. Parte-hartzaileen jatorria (10 puntu bitarte):

- Parte-hartzaileen % 50 baino gehiago Espainiatik kanpokoak badira: 10 puntu.
- Parte-hartzaileen % 50 baino gehiago Espainiakoak badira: 8 puntu.
- Espainiako eta Espainiatik kanpoko profesionalen parte-hartzea antzekoa bada: 6 puntu.

Oharra: ez dira parte hartzen duten profesional gisa hartuko Nafarroan lan egiten duten edo nagusiki Nafarroako eskualdean komunikazioko, sustapeneko eta produktuaren salmentako jarduera profesionala egiten duten pertsonak.

c. Hiriko sustapen-argitalpenak egiteko konpromisoagatik edo helmuga turistiko gisa eskaintzan sartzearagatik (5 puntu bitarte).

Sustapen bidaietarako.

- Entitateak gutxienez 5 erreportaje argitaratzeko konpromisoa hartzen badu: 5 puntu.
- Entitateak gutxienez 3 erreportaje argitaratzeko konpromisoa hartzen badu: 3 puntu.

Ezagutzeko bidaietarako

- Entitateak helmuga eskaintzan sartzeko konpromisoa hartzen badu: 5 puntu.

1.2.- Sustapen-materialak (10 puntu bitarte)

- Sustapen-materialak Iruñeari buruzko informazio turistikoa barne hartzen badu: 6 puntu
- Sustapen-materialak Iruñearen irudiren bat barne hartzen badu: 4 puntu

1.3.- Publizitate-kanpainak, konbentzionalak eta ez-konbentzionalak. Irismena (20 puntu bitarte)

- Publizitate-kanpaina Espainiatik kanpo egiten bada: 20 puntu
- Publizitate-kanpaina Espainiako hainbat eskualdetan egiten bada: 15 puntu
- Publizitate-kanpaina Nafarroan baino ez bada egiten: 0 puntu

1.4.- Ekitaldiaren webguneak (10 puntu bitarte)

- Publizitate-guneak gutxienez argazki bat, hiriko turismoaren *claim*-a, esaldi deskribatzaile bat eta www.visitpamplonairuñia.com webgunerako esteka baditu: 10 puntu
- Publizitate-guneak irudi bat eta www.visitpamplonairuñia.com webgunerako esteka baditu: 5 puntu.

2.- EKITALDIAREN KARBONO-AZTARNAREN KALKULUA, ETA HURA KONPENTSATZEKO EKINTZAK (hasta 10 puntos).

- Karbono-aztarnaren kalkulua aurkezteko konpromisoagatik: 5 puntu
- Karbono-aztarna zuzentzeko ekintzak egiteko konpromisoagatik: 10 puntu

3. EKITALDIAK HIRIAN DUEN INPAKTUA (20 puntu bitarte)

a. Ekitaldiko parte-hartzaileen kopurua (8 puntu bitarte).

- 150-300 parte-hartzaile badira: 4 puntu
- 301-500 parte-hartzaile badira: 6 puntu
- 500 parte-hartzaile baino gehiago badira: 8 puntu

b. Ekitaldiaren iraupena (4 puntu bitarte)

- Ekitaldiak egun bateko iraupena badu (goizez, goizez eta arratsaldez edo arratsaldez): 1 puntu
- Ekitaldia elkarren segidako bi egunetan egiten bada: 3 puntu
- Ekitaldia elkarren segidako bi egunetan baino gehiagotan egiten bada: 4 puntu

c. Ekitaldia urteko zein alditan egiten den (8 puntu bitarte).

- Ekitaldia abendutik martxora egiten bada: 8 puntu
- Ekitaldia uztailaren bigarren hamabostaldian egiten bada: 6 puntu

- Ekitaldia irailean eta azaroan egiten bada: 4 puntu

GUTXIENeko PUNTUAZIOA Ez dute finantzaketarik lortuko gutxieneko puntuazioa, hau da, 30 puntu lortzen ez duten proiektuek.

I. ESKAERAK EBALUATZEKO BALORAZIO-BATZORDEA:

Eskaerak ebaluatzeke, balorazio-batzorde bat eratuko da, kide hauek osatua:

Batzordeburua:	Mikel Armendáriz Barnetxea, Sustapen Ekonomikoko eta Europar Proiektzioko zinegotzi ordezkaria / Ordezkoa: beste zinegotzi ordezkari bat.
Batzordekideak:	
1.	Carlos Andrés Uranga, Iruñeko Udaleko Sustapen Ekonomikoko, Europar Proiektzioko, Berrikuntzako, Garapenerako Lankidetzako eta Gazteriako Alorreko zuzendaria / Ordezkoa: Beni Soteras Ramírez, alor bereko idazkari teknikoa.
2.	María Bezunartea Barasoain, Turismoko burua / Ordezkoa: Alberto Tomás, alor bereko turismoko teknikaria.
3.	Ana González Cortea, Turismoko teknikaria / Ordezkoa: Juanjo Urdaniz Villanueva, udal-alor bereko teknikaria.
Idazkaria:	Ángela Sanz Rives, Iruñeko Udaleko Zuzenbidean lizentziaduna / Ordezkoa: Udaleko Aholkularitza Juridikoko beste zuzenbide-lizentziadun bat.

J. PROZEDURAREN INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA. EBAZPENAREN JAKINARAZPENA:

1. Prozeduraren instrukzioa:

Instrukzio-organoak eskaeren aurre-ebaluazio bat egingen du, eta, hori abiapuntu hartuta, txosten bat ere bai, eta hor egiaztatuko du eskura daukan informazioaren arabera ondorioztatzen dela dirulaguntza jasotzen duten pertsona eta entitateek betetzen dituztela dirulaguntzen onuradun izateko bete behar diren baldintza guztiak. Espedientea balioespen-batzordeari helaraziko dio, eskaerak ebalua ditzan, deialdi honen H) apartatuan xedatu diren balioespen-irizpide objektiboen arabera.

Balioespen-batzordeak proposamen-txosten arrazoitu bat egingen du ebaluazioaren emaitza zehazteko. Ebazpen-proposamena, behar bezala arrazoiturik, instrukzio-organoak emanen du, espedientea eta balorazio-batzordearen txostena ikusita, eta ebazteko eskumena duen organoari helaraziko dio.

2. Ebazteko eta jakinarazteko epea: 2 hilabete

Dirulaguntzak emateko ebazpenak arrazoitua izan beharko du, eta bertan berariaz zehaztuko dira honako hauek: zer pertsona edo entitate eskatzaileri emanen zaion dirulaguntza, dirulaguntzaren zenbatekoa eta, hala badagokio, zer pertsona edo entitate eskatzaileraren (bat baino gehiago izaten ahal dira) eskaerak ezetsi diren.

☒ Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta hura eskatzaileei jakinaraziko zaie, bat etorrita urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 40. artikuluan xedatutakoarekin.

☐ Dirulaguntzak emateko ebazpenak amaiera emanen dio administrazio-bideari, eta udal-webgunean argitaratuko da, urriaren 1eko Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 45. artikuluko b) letran agindutakoarekin bat.

3. Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epearen hasiera-data:

- Deialdiaren laburpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara ematen den eguna: ☒ BAI ☐ EZ

NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

- Tramitatzeke eskumena duen organoaren erregistroan eskaera sartu den eguna: ☐ BAI ☒ EZ
- ☐ Epea zenbatzeko beste sistema bat:

Prozedura ebazteko gehieneko epea amaituta, berariazko ebazpenik eman ez bada, eskaera ezetsitzat joko da.

K. EMANDAKO DIRULAGUNTZEN PUBLIKOTASUNA:

Dirulaguntzak emateko ebazpena argitaratzea: ☐ BAI ☒ EZ

Aurrekoa gorabehera, azaroaren 17ko Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 18.2. artikuluan adierazitakoarekin bat, Udalak Dirulaguntzen Datu-base nazionalera igorriko ditu argibideak, aipatu legearen 20. artikulua ezartzen dituen baldintzekin bat emandako dirulaguntzen gaineko ebazpenei buruz.

L. DIRUZ LAGUNTZEN AHAL DIREN GASTUAK:

1. Diruz laguntzen ahal diren gastuen zehaztapena:

Diruz laguntzen ahal diren gastutzat joko dira diruz lagundutako jarduerarekin ez bairik gabe bat datozenak, baldin eta behar-beharrezkoak izan eta deialdi honen L.2) apartatuan ezarritako epean egiten badira. Zehazki, deialdi honen ondorioetarako, honako gastu hauek laguntzen ahal dira diruz:

1. Hiria ezagutzeko bidaia eta komunikazioaren profesionalendako bidaia.

Joan-etorri, egonaldi eta bidaietan parte hartzen duten profesionalen zuzendutako jarduerak garatzetik eratorritako gastuak: bidaia, tren, hegazkine, mantenua, ostatu-hartzea, joan-etorriak, toki turistikoetarako sarrerak, gida turistikoak kontratatzea, esperientziak erostea.

2. Sustapen-materialak.

Sormen-ideiatik eta horren garapenetik eratorritako gastuak: diseinua, edizioa, formatuetara egokitzea...

3. Publizitate-kanpainak: kanpainaren sormen-idea kontratatzea; hura diseinatzea eta eta hainbat komunikabideetan sartzea hala nola prentsan, aldizkari espezializatuetan, irratan, telebistan, argitalpenetan; publizitatea kanpoko euskarrietan, bilatzaileetan (SEM), sare sozialetan; onlineko marketin-ekintzak eta komunikabide digitalen erosketa programatikoa.

- Webgunea: ekitaldiaren webgunearen gastuak eta eduki hori itzultzeko gastuak onartuko dira.

Diruz laguntzen ahal diren gastuetan, kostua ezin izanen da inolaz ere izan merkatuko balioa baino handiagoa.

Egindako gastutzat hartuko da egiazki ordaindu dena deialdi honen P) letraren 2. zenbakian ezarritako justifikazio-aldia amaitu baino lehen:

☒ BAI ☐ EZ

Honako gastu hauek ez dira, inola ere ez, gastu diruz lagungarritzat hartuko:

2. Dirulaguntzen xede izan daitezkeen gastuak egiteko epea: 2024ko urriaren 1etik 2025eko irailaren 30era.

M. AZPIKONTRATATZEA:

Jarduera osorik edo zati batean hirugarrenek egitea hitzartzeko aukera, Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat:

NORGEHIAGOKAKO ARAUBIDEA

☒ BAI ☐ EZ

Ehunekoa: 100%

N. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN FINANTZAKETA:

Pertsona edo entitate onuradunek diruz lagundutako jarduerak finantzatu beharko dituzte, beren ekarpenen edo beste bide batzuen bitartez, apartatu honetan zehaztutako zenbateko edo ehunekoan. Finantzaketa horren zenbatekoa, jatorria eta dirulaguntzaren xedea den jarduerari aplikatzeko era justifikatzeko betebeharra: ☒ BAI ☐ EZ

Ehunekoa edo zenbatekoa adierazi beharra dago: gutxienez aurrekontu onartuaren % 30 izan behar du, oinarri hauetako C.3 puntuan jasotakoarekin bat.

Ñ. DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUERAREN BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA:

Udalaren dirulaguntza jasotzea ☒ BATERAGARRIA ☐ BATERAEZINA da helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuk jasotzearekin, kontuan hartu gabe zer administrazio, entitate edo pertsonak eman dituen laguntza horiek.

Sustapen Ekonomikoko, Europar proiektuak, Berrikuntzako, Garapenerako Lankidetzako eta Gazteriako Alorrak diruz laguntzen dituen jarduerak Udaleko beste alor batek edo Nafarroako Gobernuak ere diruz laguntzeko aukera dagoen kasuetan, lehenengo alorra beste aldearekin koordinatuko da zehazteko administrazio bakoitzak zer nolako tratamendua emanen dion beste administrazioak eskatu, eman edo ordaindutako dirulaguntzari, eta, edozein kasutan, bermatuko da bi administrazioek diruz lagundutako zenbatekoak –bestelako diru-sarreraren bidez finantzatuak–, guztira, ez duela gaindituko diruz lagundutako jardueraren kostua.

Dirulaguntzaren zenbatekoa ez da inola ere izanen, berez edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideak gehituta, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa. Halakorik gertatzen bada, bidezkoa izanen da kostuaren gaineratik lortutako soberakina itzularaztea, bai eta dagozkion berandutze-interesak eskatzea ere.

Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik eskatu edo lortuz gero, pertsona edo entitate onuradunak horren berri eman beharko dio organo emaileari. Jakinarazpen hori bestelako laguntza horiek lortu direla jakin bezain laster egin behar da, eta, betiere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

O. ORDAINKETA:

1. Ordaintzeko sistema: Dirulaguntzak modalitate honen arabera ordainduko dira:

- ☐ Diruz lagundutako ekintzak, proiektuak, jarduerak edo jarduerak justifikatu ondoko ordainketa.
- ☒ Konturako ordainketa:
- ☐ Ordainketa zatikatua:
 - ☒ Ordainketa aurreratua: 100%
 - ☐ Ordainketa mistoa, ordainketa zatikatuaren eta aurreratuaren artekoa:

Dirulaguntzak ezin izanen zaizkie ordaindu pertsona edo entitate onuradunei, ez badituzte eguneraturik tributu-betebeharrak zein Gizarte Segurantzarekikoak, edo diru-itzulketa bidezkoa dela xedatu duen ebazpen batek zorduntzat jotzen baditu.

Aurrekoa gorabehera, dirulaguntzaren izaera kontuan hartuta, Iruñeko Udalak ofizioz kitatzen ahalko ditu, aldez aurretik, dirulaguntzen onuradunengandik kobratzeke dituen zorrak, dirulaguntza osorik edo parte batean, dagozkion kopuruekin konpentsatuta.

2. Bermeak eratzea:

☐ BAI ☒ EZ

Eratzeko modua eta zenbatekoa:

P. JUSTIFIKAZIOA:

1. Justifikatzeko modalitatea: Modalitate hau erabiliko da ezarritako baldintzak eta dirulaguntzaren helburuak bete direla justifikatzeko:

☒ Justifikazio-kontua:

☐ Justifikazio-kontua, gastuen ziurtagiria aurkeztuta (Ordenantzaren 35. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

☐ Justifikazio-kontua, kontu-ikuskaritzaren txostena aurkeztuta.

Bestelako edukiak: ☐ BAI ☐ EZ

☒ Justifikazio-kontu erraztua. Justifikazioa Iruñeko Udalaren egoitza elektronikoan (www.pamplona.es/eu) gaitutako izapidearen bitartez egin behar da: "Pertsona juridikoendako dirulaguntzen justifikazio elektronikoa".

Agiri hauek aurkeztu behar dira:

1. Aurkeztutako datuak egiazkoak direla eta errealitatearekin bat datozela dioen erantzukizunpeko adierazpena, IX. eranskineko ereduarekin bat.

2. Diruz lagundutako jardueraren justifikazio-memoria, VII. ERANSKINArekin bat, sustapenaren eta publizitatearen arloko jarduketei buruz.

Justifikazio-memoria horrek honako hauek jasoko ditu: antolatutako sustapen-bidaiaaren xehetasuna (famtrip-a, presstrip-a,...), editatu eta argitaratutako sustapen-materiala, sustapen- eta publizitate-ekintzak eta egindako hedapen-jarduerak:

- Hiria ezagutzeko/sustatzeko bidaiaren programaren memoria, bisitatutako lekuak eta egindako jarduerak adierazita. Halaber, bidaiaren etorritakoen kopurua eta profila, egonaldi-egunak, erabilitako ostatuak eta antolatutako sustapen-bidaiaaren azken balorazioa adieraziko dira. Gainera, bidaiaren hedatzeko kanpainaren kopia digitalak, bidaiak hedatzeko materiala, prentsa-oharrak, ekitaldiari buruz egindako argitalpenak, komunikabideek eta aldizkari espezializatuek jasotako informazioak erantsiko dira.

- Egindako sustapen-materialen xehetasuna: publizitate-materiala (liburuxkak, hesiak, olanak...).

Zerbitzu honi editatu eta argitaratu edo inprimatu den material guztiaren kopia digitala helaraziko zaio.

- Hedapen horren guztiaren irudiak, udal-logotipoa edo helmuga turistikoaren marka agertzen dutenak.

- Publizitatea eta argitalpenak hainbat komunikabidetan: komunikabide mota, izena eta txertatze-kopurua jasotzea. Komunikabideek jasotako informazioak.

- Hedapena hedabide digitaletan: komunikabide mota (webgunea edo sare sozialak), izena eta argitalpen kopurua jasotzea.

- Ekitaldi bakoitzeko argitalpenen sareetako eta webguneetako elkarrekintzen rankinga.

- Sustapen-ekintzen irudiak, udal-logotipoa agertzen dutenak.

- Prentsa-txostena/-clipping-a (prentsa-oharrak, igorritako komunikatuak...).

-

Zerbitzu honi editatu eta argitaratu edo inprimatu den material guztiaren kopia digitala helaraziko zaio.

3. Diruz lagundutako jarduera dela-eta egindako gastu guztien justifikazioko memoria ekonomikoa, VII. eranskinarekin bat. Barne hartuko du egindako gastuen eta lortutako diru-sarreraren zerrenda,

kontzeptuen arabera ordenaturik eta zenbatekoen guztizkoa emanda, non honako hauek identifikatuko baitira: hartzekoduna, ordainketa-agiria, zenbatekoa, jaulkitze-data eta ordainketa-data. Ez da dagozkien eranskinetan aurkeztu diren bestelako formaturik onartuko.

Honako bi aukera hauetako bat hautatzen ahal da:

- a. Aurkeztea diru-sarrera guztiak (dagozkien egiaztagiriekin) eta faktura guztiak (dagozkien egiaztagiriekin) justifikatzen dituen dokumentazioa.
- b. Diru-sarrera eta gastu guztiak aurkeztu ezean, eta aurkeztutako dokumentazioa aztertu ondoren, GASTU ETA ORDAINKETEN egiaztagiria eskatuko dira, dirulaguntza behar bezala aplikatu dela egiaztatzeko. Egindako gastuak eta diruz lagundutako gastuen ordainketak egiaztatzeko agirien ehuneko hoge gutxienez eskatuko da, betiere horiek ahalbidetu beharko dutelarik diruz lagundu eta egindako gastu osoaren ehuneko hogeita hamar gutxienez egiaztatzea.

Egindako gastuak osagai guztiak jasotzen dituzten fakturen bitartez egiaztatuko dira, eta inongo kasutan ez da onartuko ordainagiri hutsik edo kuxako tiketik. Fakturak indarra duten legeen arabera jaulkiko dira, haietan zehazturik faktura egin duen enpresaren izena eta IFZa, fakturaren jaulkitze-data, kontzeptua, zenbatekoa eta fakturatu diren objektuen edo kontzeptuen xehekapena eta aplikatutako Balio Erantsiaren gaineko Zerga. Halaber, PFEZaren atxikipena eta ordainketa ere zehaztuko dira. PFEZaren eta BEZaren kasuan, kopuru horiek Ogasunean sartu izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko da.

Jarduera finantzatu duten diru-sarrerak edo dirulaguntzak (horien zenbatekoa eta jatorria barne). Honako hauek aurkeztuta egiaztatuko dira: ebazpenak, leihatilako orriak, diru-sarrerak jasota uzten dituzten babesletza-kontratuak eta bankuko sarrera-egiaztagiria.

5. Halakorik behar balitz, ordainketa-gutuna, aplikatu gabeko geldikinak eta horiei dagozkien berandutze-interesak itzultzekoa.

Txosten bat eman beharko da Udaleko teknikari eskudun batek sinatuta, non espresuki adierazita geldituko baita guztiz bete dela dirulaguntzaren xedea, edo, bestela, zein diren justifikazioa onestea eragozten duten akatsak edo inguruabarrak.

- ☐ Gastuaren egiaztapena moduluka (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 37. artikuluan ezarritako aginduekin bat):

Zehaztu beharrekoak:

Modulua osatuko duten unitateak:

Moduluaren unitate-kostua:

Gainerako inguruabarrak:

- ☐ Kontabilitateko egoera-orriak aurkeztea (Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 38. artikuluan ezarritako aginduekin bat).

Pertsona edo entitate onuradunak ziurtagiri bat aurkeztu beharko du egiaztatzeko aurkeztutako kontabilitateko egoera-orriak ofizialak direla eta entitateko organo eskudunak behar bezala onetsi dituela.

- ☐ Beste sistema bat:

2. Justifikazioa aurkezteko epemuga: Justifikazio-agiriak aurkezteko azken eguna 2025eko

urriaren 31 izanen da.

Q. DIRUA ITZULARAZTEKO ARRAZOIAK:

Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45. artikuluan eta apartatu honetan adierazitako gainerako kasuetan ageri diren itzularazteko arrazoiak bat gertatzen bada, zilegi izanen da bai jasotako dirulaguntzak itzularaztea, osorik edo hein batean, bai eta berandutze-interesak galdatzea ere – dirulaguntzak kobratu eta hortik aitzina, dirua itzultzea bidezkoa dela erabakitako egunera arte–.

Dirua itzularazteko berariazko arrazoiak: ☒ BAI ☐ EZ

Gastuak justifikatzeko agiririk aurkezten ez bada, aurkeztutako dokumentazioa osatugabea bada edo ezarritako epetik kanpo aurkezten bada, jasotako dirulaguntzaren zenbatekoa itzuli beharko da, edo, halakorik balitz, ordaintzeke dagoen kopurua jasotzeko eskubidea galduko da, betiere Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorraren 45.1c) artikuluekin bat.

Iruñeko Udalaren Dirulaguntzei buruzko Ordenantza Orokorrean (IV. titulua) eta Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrean ezarritako arrazoiak gain, oinarri honetan jasotakoak ere izanen dira dirulaguntzak itzularazteko eta atxikitzeak arrazoiak.

Itzuli beharreko kopuruak zuzenbide publikoko diru-sarreratzat joko dira. Dirulaguntzak itzultzeko prozedura Iruñeko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren IV. tituluko II. kapituluan ezarritakoaren arabera arautuko da.

R. ERREKURTSOAK:

Deialdi honen, oinarri hauen eta horiek betearazteko har daitezkeen administrazio-ebazpenen aurka errekurtsio hauek paratzen ahalko dira, aukeran:

- Berraztertze errekurtsioa, administrazio-egintzaren egile den udal-organoari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo, bestela, argitara eman eta biharamunetik aitzina.
- Gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta hortik aitzina.
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Iruñeko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiari zuzendua, bi hilabeteko epean. Epe hori errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina kontatuko da.

S. KONTUAN HARTU BEHARREKO BESTE BATZUK:

T. ERANSKINEN AURKIBIDEA:

☐ I. ERANSKINA. ESKABIDE-EREDUA.

☐ II. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, ONURADUNAK BETEKIZUNAK BETETZEN DITUELA ETA ONURADUN IZATEKO EZEIN DEBEKU ZIOK UKITZEN EZ DUELA ZIURTATZEKO.

☐ III. ERANSKINA. ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, XEDE BERERAKO DIRULAGUNTZAK ESKATU IZANAREN GAINEAN.

☒ ERANSKIN OSAGARRIAK.

IV. ERANSKINA- JARDUERAREN ARGIBIDE-MEMORIA
V. ERANSKINA- ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, balio erantsiaren gaineko zergaren (BEZ) inguruan
VI. ERANSKINA- ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, GARDENTASUN-BETEBEHARRARI BURUZ.
VII. ERANSKINA- JARDUERAREN JUSTIFIKAZIO-MEMORIA
VIII. ERANSKINA- ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA, GALDATUTAKO AGIRIEN GAINEAN
IX. ERANSKINA. JUSTIFIKAZIO TELEMATIKOA

OHAR GARRANTZITSUA: *Agiri hau erabat ongi ikusteko, gomendagarria da PDF formatuan deskargatu eta irakurtzea.*